

ARRIAGA

Euskaraz, ahoz, *Arrea* esaten diote.

Beste hainbat toponimotan gertatu bezala (*Arana*<**Aranaga**, edota *Madaria*<**Madariaga**) amaierako -aga -a baino ez da ahoskatzen. Gainera, erdaraz ari direnean *Arriagas*, gaztelaniaren amaierako -s pluralgilea gehituta; baina amaierako -s hori inguru honetan ohikoa bada ere, erabat okerra da ahozko nahiz idatzizko erabileran.

Arriaga izena 1653tik dokumentatu dugu, eta izen horrekin auzoa baino ez da izendatzen, ez baitugu izen horrekin etxerik dokumentatu. Beraz pentsatzekoa da izena bera auzoa izendatzeko sortu zela. Esanahiari begiratuta harri + -aga ugaritasuna adierazten duen atzizkiaz eratorritako izena da, harri asko dagoen tokia, alegia.

Auzo honetako baserri zahar gehienek zutik diraute, eta Altzagatik hurbil dagoen arren, aldaketa gutxi izan ditu auzoak.

La forma oral en euskera es *Arrea*. Como sucede en otros muchos topónimos (*Arana*<**Aranaga**, o *Madaria*<**Madariaga**), sólo se pronuncia la -a final del sufijo -aga. Además, hablando en castellano se suele añadir al final la marca pluralizadora -s, convirtiéndose en *Arriagas*; en cualquier caso, aunque el uso de la -s final sea común en esta zona, debemos decir que se trata de una forma incorrecta, tanto en la utilización oral como escrita.

El nombre Arriaga sólo se utiliza para denominar al barrio y lo hemos documentado desde el año 1653, lo que nos da una idea de la antigüedad del barrio. En cuanto al significado, proviene del nombre harri (piedra) + -aga (sufijo para denotar abundancia o copiosidad), por lo que expresa un sitio en el que existen abundantes piedras.

La mayoría de los antiguos caseríos de Arriaga siguen en pie hoy en día, y aunque se encuentra relativamente cercano a Alzaga, el barrio apenas ha sufrido modificaciones.

Altzagena (*Altzane*)

Ahoz *Alzane* edo *Altzane* izenez ezaguna den baserri honen idatzizko forma egokia **Altzagena** da. Jatorrian baserri honek **Markatalai** izena zuen, eta horrela jasotzen da hainbat dokumentu eta eskritura zaharretan. XVIII. mende amaieran dokumentatzen da lehenengoz Altzagena izenarekin. XVIII. mendean zehar izena ordezkatu zuen, eta Altzaga abizena + -ena genitibo atzizkiak eratutako forma hartuko zuen. XIX. mendera arte bi izenak txandakatzen ziren, hurrean. Gaur egun baserriak *Altzagagane* izena dauka errotulaturatuta, baina forma hori ez da inon ere jaso, bai ordea Altzagena. Bokalartereko <g> galteza ahoskeran normala da eta hortik, *Altzane* edo *Alzane* formak.



La forma escrita correcta del caserío que se conoce oralmente como *Alzane* o *Altzane* es **Altzagena**. En origen, ese caserío tenía por nombre **Markatalai**, y así se recoge en varios documentos y escrituras antiguas. Es a finales del siglo XVIII cuando se documenta por primera vez con el nombre Altzagena. Así, reemplazó su nombre anterior durante el siglo XVIII y adoptó la forma compuesta por el apellido Altzaga y el sufijo genitivo -ena. Hasta el siglo XIX los dos nombres se alternaron indis-

tintamente. En cualquier caso, la forma Altzagena es la que prevalece hoy en día. El caserío tiene rotulado el nombre *Altzagagane*, pero esa denominación no está documentada. Las formas orales *Altzane* o *Alzane* son consecuencia de la pérdida de la <g> intervocálica frecuente en el uso oral del idioma.

Txikoena (Urrestibekoa)

Baserri honen jatorrizko forma **Urrestibekoa** da, Urresti baserri multzoko baserria dugu beraz. Baina, gaur egun **Txikoena** (*Txikone*) izenaz ezagutzen dugu. XX. mendean hartu zuen izen berria.

La denominación original de este caserío es **Urrestibekoa** y, por tanto, se trata de un caserío perteneciente al conjunto de Urresti. Hoy en día, sin embargo, se conoce por el nombre **Txikoena** (*Txikone*). Adquirió esa nueva denominación a lo largo del siglo XX.



Goskoetxe (*Koskoletxe*)

Etxaldeak duen erro-tuluan 1727an eraikia dela dio. Hala ere, 1745ean eta 1796an egindako sute-gi-erroldean ez da ageri. Dokumentazio zaharrenean *Goscoechea* forma ageri da (1799. urtean), ziurrenik Goxeaskoa bezalako forma zaharretik datorrena, baina ezin da ziurtatu. Hasierako <g> <k> bihurtu zen, gortze prozesuaren ondorioz (goilara>koilara hitzean bezala) eta "*Koskoletze*" ahoskatzen da eta baita dokumentatu ere. Nolanahi ere, **Goskoetxe** da Euskaltzaindiaren iritziz idatzizko forma egokia.



En el rótulo que aparece en el caserío reza que se construyó en 1727. Sin embargo, no aparece en las fogueraciones o recuentos de fogueras realizados en 1745 y 1796. La primera referencia escrita que encontramos es del año 1799 con la forma *Goscoechea*, seguramente derivada de la forma antigua *Goxeaskoa*, pero no podemos confirmar ese último término. Posteriormente se documenta la forma "*Koskoletze*" donde la <g> inicial se ha transformado en <k>, como consecuencia del

fenómeno de oclusión . En cualquier caso, según Euskaltzaindia, la forma escrita correcta es **Goskoetxe**.

Irubideta



Bada Arriagan desagertutako izen bat, berreskuratu beharko litzatekeena eta dagoeneko herritarren memoriatik desagertu dena. Hain zuzen ere Artetxe baserriaren aurreko bidegurutzeari **Irubideta** esaten zitzaion 1890eko dokumentu batek jasotzen duenez. Izenak lekua bera ezin hobeto deskribatzen du, bertan hiru bide gurutzatzen baitira.

En la zona de Arriaga, para describir el cruce ubicado delante del caserío Artetxe, se ha documentado en un texto del año 1890 el topónimo **Irubideta**, ya desaparecido y olvidado en la memoria de la gente, pero que a nuestro juicio debería recuperarse. Dicho nombre describe de manera inmejorable el sitio, puesto que en él se encuentra el cruce de tres caminos.

Gallarraga

Altzaga Ikastola dagoen mendiaren jatorrizko izena **Gallarraga** da, gaur egun **Kukularra** esaten badiogu ere. Kukularra bertan zegoen etxearen eta belardiaren izena da, ez mendiarena. Gallarraga toponimoa XVIII. mendeaz geroztik ugari dokumentatu da; zoritxarrez, gaur egun hiztunen memoriatik desagertzen ari da.

El nombre original del monte donde hoy se ubica la ikastola Altzaga es **Gallarraga**, aunque actualmente se denomina comúnmente **Kukularra**. Kukularra es el nombre de la casa que se encontraba en ese lugar y del prado contiguo, pero no del monte. El topónimo Gallarraga está documentado profusamente desde el siglo XVIII, aunque, por desgracia, ha caído en desuso.



Arriagako etxaldeak mendez mende Caseríos de Arriaga a lo largo de los siglos

XVII. MENDEKO ETA LEHENAGOKO ETXEAK CASAS DEL SIGLO XVII Y ANTERIORES	XVIII. MENDEKO ETXEAK CASAS DEL SIGLO XVIII
Agirre	Beitigoikoa *
Agirretxu *	Iturralde
Altzagena (Markatalai) (<i>Altzane</i>)	Leioena *
Aranaga (<i>Arane</i>)	Mugaburu (<i>Muguru</i>)
Aranagatxu * (<i>Aranatxu</i>)	Mugaburutxikerra
Araukoaurrekoa *	Pasajebarria *
Araukotorre *	Rodrigena *
Argiñena (<i>Argiñe</i>)	Santxetxe(goikoa) *
Argiñenagoikoa *	Txertudi *
Arribaiti (Arrigoiti) (<i>Arribiti</i>)	Txikoena (Urrestibekoa) (<i>Txikone</i>)
Arribetizarra	Ugartetxe
Artetxe	Urrestiburu (Urrestitxu, Urrestigoikoa)
Barberuena * (Araukoerdikoa)	Urrestierdikoa *
Basarrate (<i>Basarte</i>)	
Basarrategoikoa *	
Basazelai (<i>Basalei</i>)	
Beitibekoa	

* DESAGERTUTAKO ETXALDEAK / CASERÍOS DESAPARECIDOS (Urrestibekoa) SINONIMOA (Txikone) AHOZKO ERA / FORMA ORAL

Arriagako etxaldeak mendez mende Caseríos de Arriaga a lo largo de los siglos

XIX. MENDEKO ETXEAK

CASAS DEL SIGLO XIX

Arribetierdikoa
Kukularra *
Mendikoetxe (Andikoetxe)

XX. MENDEKO ETXEAK

CASAS DEL SIGLO XX

Arriagana
Erdikoetxe
Goskoetxeaurre
Ibaigana
Mendikoetxebarri
Txakolina
Txantelenagoikoa
Txantxiena
Urrestibarri